

Euskal AEko etxeko batez besteko gastua 36.313 eurokoa izan zen 2024an; ia ez zen aldatu 2023tik

Aurreko urtearen aldean igoerarik handiena Aseguruak eta finantza-zerbitzuak (% 9,6) eta Aisia, ikuskizunak eta kultura (% 8,4) taldeetan izan zen

Eustaten datuen arabera, **etxeko batez besteko gastua**, termino arruntetan, 36.313 eurokoa izan zen 2024an, hau da, aurreko urtean baino 18 euro gutxiago. Nabarmentzekoak dira *Aseguruak eta finantza-zerbitzuak* (% 9,6) eta *Aisia, ikuskizunak eta kultura* (% 8,4) taldeetan gastatutakoa. **Pertsonako batez besteko gastua** % 0,4 murriztu zen eta 15.504 eurokoa izan zen 2024an.

Gastu-taldeen arabera, etxe bakoitzeko batez besteko gastuen bilakaera goranzkoa izan da 13 taldeetatik 6tan. Etxe bakoitzeko batez besteko gastuak *Aseguruak eta finantza-zerbitzuak* taldean izan zuen igoerarik handiena 2024an, % 9,6ko hazkundearekin 2023ko datuen aldean; horrek esan nahi du etxe bakoitzeko batez besteko gastua 1.261 eurokoa izan zela urtean.

Euskal AEko etxeetako etxeko batez besteko gastua eta gastuaren egitura, gastu-taldearen arabera (COICOP 2018, 2 digitu). 2023-2024

	Sutentatzaile nagusiaren prestakuntza-maila		Gastuaren egitura (%)	
	2024	Gehikuntza (%) 2024/2023	2023	2024
GUZTIRA	36.313	-0,0	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.633	-1,4	15,7	15,5
02 T Edari alkoholdunak, tabakoa eta narkotikoak	365	-9,6	1,1	1,0
03 T Jantzeko gaiak eta oinetakoak	1.438	2,5	3,9	4,0
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	13.008	1,0	35,5	35,8
05 T Altzariak, etxeko ekipamendua eta etxebizitza kontserbatzeko gastu arruntak	1.319	-7,1	3,9	3,6
06 T Osasuna	1.284	0,7	3,5	3,5
07 T Garraiok	3.250	-1,9	9,1	9,0
08 T Informazioa eta komunikazioak	1.037	-0,8	2,9	2,9
09 T Aisia, ikuskizunak eta kultura	1.732	8,4	4,4	4,8
10 T Irakastuntza	568	-7,9	1,7	1,6
11 T hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	4.207	3,0	11,2	11,6
12 T Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	1.261	9,6	3,2	3,5
13 T Beste ondasun eta zerbitzuak	1.211	-15,0	3,9	3,3

Data 2025eko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Aisia, ikuskizunak eta kultura taldean eta Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak taldean egindako gastuek handitzen jarraitzen dute Euskadiko etxeen aurrekontuan

Hazkunderik handiena izan duen etxeko batez besteko gastuaren bigarren taldea *Aisia, ikuskizunak eta kultura* izan da (% 8,4), —etxeko batez besteko gastua 1.732 euro—. Ondoren, honako talde hauen gastuak datoz: *Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak* (% 3,0) —urtean zehar etxeko batez besteko gastua 4.207 euro—; *Jantziak eta oinetakoak* (% 2,5) —kontzeptu horretan, euskal etxeek 1.438 euro gastatu zituzten urtean, batez beste—; *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak* (% 1,0) —etxeko batez besteko gastua 13.008 euro—; eta *Osasuna* (% 0,7) —batez besteko gastua 1.284 euro—.

Aitzitik, aurreko urtearekin alderatuta, etxe bakoitzeko batez besteko gastuak talde hauetan gutxitu egin ziren: *Beste ondasun eta zerbitzu batzuk* (-% 15,0) —*Zainketa pertsonalak, Norberaren gauzak eta Gizarte-babesa eta beste zerbitzu batzuk* barne hartzen ditu—; *Edari alkoholikoenak, tabakoa eta narkotikoak* (-% 9,6); *Irakaskuntza* (-% 7,9); *Altzariak, etxeko ekipamendua eta etxebizitzaren kontserbazio-gastu arruntak* (-% 7,1); *Garraioak* (-% 1,9); *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* (-% 1,4); eta *Informazio eta komunikazioei buruzkoak* (-% 0,8).

Kontsumoaren egiturari dagokionez, *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak* taldeko gastua da Euskal AEko etxeen gasturik handiena, gastuaren herena baino gehiago kontzeptu horretara bideratzen baitute (% 35,8), hau da, etxe bakoitzeko 13.008 euro urtean 2024an. Gainera, gastu-talde horrek etxeen guztizko gastu-aurrekontuan duen garrantzia ehuneko 0,3 puntu igo da 2023tik. Hala eta guztiz ere, talde horretan sartutako hainbat gastuk behera egin dute 2023tik. Hori da, esate baterako, gas eta beste erregai batzuetan etxeek ordaintzen duten fakturaren kasua —2024an % 23,2 txikiagoa izan zen—, edo ur-hornidura eta -saneamenduari eta zabor-bilketari dagokien etxeko gastuaren kasua —% 12,0ko jaitsiera 2023ko datuekin alderatuta—.

Etxeko batez besteko gastua *Elikadura eta alkoholik gabeko edariak* taldean bi hamarren jaitsi da 2023an familia-kontsumoan oro har zuen pisuarekiko, eta gastuaren % 15,5 izan da 2024an —5.633 euro etxe bakoitzeko—. 2024an bi taldeen artean (etxebizitza, honi lotutako gastuak eta elikadura) etxe bakoitzaren batez besteko aurrekontuaren erdia (% 51,3) batu zuten —2023an % 50,8 izan zen—.

Hotel, kafetegi eta jatetxeetan egindako gastuaren pisua 4.207 eurokoa izan da urtean 2024an, eta azken urteetako goranzko joerari eutsi dio, guztizko gastuaren % 11,6ra iritsita, hau da, 2023an baino lau hamarren handiagoa.

Euskal AEko etxeek kontsumoan egindako guztizko gastua % 0,1 hazi zen 2024an

Termino absolutuetan, Euskal AEko etxeek kontsumoan egindako **gustizko gastua** 34.312 milioi eurora iritsi zen 2024an, hau da, 2023an baino % 0,1 gehiago, bilakaera desberdinak erregistratuz gastu-taldeetan.

Euskal AEko etxeetako gastu osoa, gastu taldearen arabera (2 digitu COICOP 2018). 2024

	Gustizko gastua (mila euro)	
	2024	Gehikuntza (%) 2024/2023
GUZTIRA	34.311.632	0,1
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.322.733	-1,3
02 T Edari alkoholikoenak, tabakoa eta narkotikoak	345.186	-9,5
03 T Jantzeko gaiak eta oinetakoak	1.358.325	2,7
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	12.290.495	1,2
05 T Altzariak, etxeko ekipamendua eta etxebizitza kontserbatzeko gastu arruntak	1.246.176	-6,9
06 T Osasuna	1.213.219	0,9
07 T Garraioak	3.071.190	-1,8
08 T Informazioa eta komunikazioak	980.274	-0,6
09 T Aisia, ikuskizunak eta kultura	1.636.675	8,6
10 T Irakaskuntza	536.851	-7,8
11 T hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	3.975.024	3,1
12 T Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	1.191.336	9,7
13 T Beste ondasun eta zerbitzuak	1.144.148	-14,9

Data 2025eko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Etkeen guztizko gastuaren banaketari dagokionez, ia % 63 hiru talde handitan bildu zen: *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak*; *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak*, eta *Hotel, kafetegi eta jatetxeak*.

Horrela, gastu-bolumenean pisurik handiena duen taldeak —*Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak*—, gastu osoaren % 35,8 egin zuen eta % 1,2 hazi zen 2023aren aldean. Garrantzian bigarrena, *Elikadura eta alkoholik gabeko edarien* gastua (guztiaren % 15,5) —% 1,3 murriztu zen aurreko aldiaren aldean.

Ondoren, euskal etxeek *Hotel, kafetegi eta jatetxeetan* egindako gastua 3.975 milioi euro baino gehiagokoa izan zen, 2024ko guztizko gastuaren % 11,6ra iritsiz; 2023koaren aldean % 3,1eko hazkundera izan zuen.

Aipatzekoak dira, ehunekoei dagokienez, *Aseguruak eta finantza-zerbitzuak* taldean egindako gastu osoaren % 9,7ko urteko hazkundera (1.191 milioi euro) eta *Aisia, ikuskizunak eta kultura* taldean egindako gastua, % 8,6ko igoerarekin (1.637 milioi eurora iritsi zen 2024an).

Beste ondasun eta zerbitzu batzuk taldeko guztizko gastua, berriz, murriztu egin zen (–% 14,9) —*Zainketa pertsonalak, Norberaren gauzak eta Gizarte-babesa eta beste zerbitzu batzuk* barne hartzen ditu—, *Edari alkoholikoen, tabakoa eta narkotikoak* (–% 9,5), *Irakaskuntza* (–% 7,8) eta *Altzariak, etxeko ekipamendua eta etxea mantentzeko gastu arruntak* (–% 6,9).

Lurralde historikoen arabera, Euskal AEko kontsumoko gastu osoaren % 14,8 Arabako familiek egin zuten 2024an, Bizkaikoek gastuaren % 53,0 eta Gipuzkoakoek % 32,2.

Euskal AEko etxeetako guztizko gastua (milaka euro), gastu-taldearen arabera (2 digitu COICOP 2018), lurralde historikoari jarraiki. 2024

	Euskal AE	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
GUZTIRA	34.311.632	5.073.670	18.181.420	11.056.541
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.322.733	748.751	2.786.005	1.787.978
02 T Edari alkoholikoen, tabakoa eta narkotikoak	345.186	45.696	188.714	110.776
03 T Jantzeko gaiak eta oinetakoak	1.358.325	189.662	718.382	450.281
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	12.290.495	1.813.800	6.617.171	3.859.524
05 T Altzariak, etxeko ekipamendua eta etxebizitza kontserbatzeko gastu arruntak	1.246.176	180.931	735.213	330.031
06 T Osasuna	1.213.219	213.523	617.704	381.991
07 T Garraioak	3.071.190	561.811	1.428.418	1.080.961
08 T Informazioa eta komunikazioak	980.274	154.507	513.953	311.815
09 T Aisia, ikuskizunak eta kultura	1.636.675	246.403	848.411	541.861
10 T Irakaskuntza	536.851	54.410	279.503	202.937
11 T hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	3.975.024	546.007	2.116.758	1.312.259
12 T Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	1.191.336	165.251	694.118	331.968
13 T Beste ondasun eta zerbitzuak	1.144.148	152.918	637.070	354.160

Data 2025eko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Gipuzkoa etxeko batez besteko gastuaren buruan dago 2024an

2024an, **Gipuzkoako** etxeek hiru lurralde historikoetako batez besteko gasturik handiena izan dute etxeko —36.765 euro—; eta, aldi berean, 2023tik gehien igo dena izan da —% 1,9—.Hazkunde hori batez ere *Aisia, ikuskizunak eta kultura* (% 27,4), *Garraioak* (% 11,2) eta *Aseguruak eta finantza-zerbitzuak* (%6,9) taldeetan izandako igoerari zor zaio. Aitzitik, Gipuzkoan bilakaera eskasena izan duten etxeko batez besteko gastuak hauek izan dira: *Beste ondasun eta zerbitzu batzuk* (–% 16,7)

eta Altzariak, etxeko ekipamendua eta etxebizitzaren kontserbazio-gastu arruntak (–% 9,9). Azken horiek, gainera, bilakaera negatiboa izan dute 2024an hiru lurralde historikoetan.

Euskal AEko etxeko batez besteko gastua (euroak), gastu-taldearen arabera, lurralde historikoari jarraiki (COICOP 2018, 2 digitu). 2024

	Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2024	Gehikuntza (%) 2024/2023	2024	Gehikuntza (%) 2024/2023	2024	Gehikuntza (%) 2024/2023
GUZTIRA	34.020	-6,4	36.730	0,7	36.765	1,9
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.020	-13,1	5.628	0,1	5.945	1,9
02 T Edari alkoholdunak, tabakoa eta narkotikoak	306	-13,9	381	-10,3	368	-6,4
03 T Janzteko gaiak eta oinetakoak	1.272	-8,0	1.451	7,4	1.497	0,2
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	12.162	-4,3	13.368	2,2	12.834	1,7
05 T Altzariak, etxeko ekipamendua eta etxebizitza kontserbatzeko gastu arruntak	1.213	-6,4	1.485	-5,9	1.097	-9,9
06 T Osasuna	1.432	17,7	1.248	-1,0	1.270	-4,3
07 T Garraioak	3.767	-1,8	2.886	-10,1	3.594	11,2
08 T Informazioa eta komunikazioak	1.036	8,3	1.038	0,2	1.037	-6,1
09 T Aisia, ikuskizunak eta kultura	1.652	1,5	1.714	0,7	1.802	27,4
10 T Irakastuntza	365	-17,5	565	-14,1	675	6,2
11 T hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	3.661	-10,8	4.276	9,0	4.364	0,4
12 T Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	1.108	12,0	1.402	10,4	1.104	6,9
13 T Beste ondasun eta zerbitzuak	1.025	-37,3	1.287	-6,0	1.178	-16,7

Data 2025eko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Bizkaiko lurralde historikoan, etxeko batez besteko gastua 36.730 eurokoa izan da 2024an — 2023an baino % 0,7 handiagoa—. Lurralde horretan gora egin dute etxeko batez besteko gastuek *Aseguruak eta finantza-zerbitzuak* (% 10,4) eta *Hotel, kafetegi eta jatetxeak* (% 9,0) taldeetan. Aitzitik, talde hauetan izandako jaitsierak azpimarratu behar dira: *Irakaskuntza* (–% 14,1), *Edari alkoholdunak, tabakoa eta narkotikoak* (–% 10,3) eta *Garraioak* (–% 10,1).

Azkenik, **Araban**, etxeko batez besteko gastua 34.020 eurokoa izan zen, 2023an baino –% 6,4 txikiagoa. Gastuaren beherakada gastu-talde gehienetan gertatu da, hauetan nabarmenez: *Beste ondasun eta zerbitzu batzuk* (–% 37,3) eta *Irakaskuntza* (–% 17,5). Beste muturrean, 2023ko datuekin alderatuta, bilakaerarik onena izan duten taldeak etxeko batez besteko gastuari dagokionez izan dira: *Osasuna* (% 17,7) eta *Aseguruak eta finantza-zerbitzuak* (% 12).

Kontsumoko gastua etxeen ezaugarrien arabera

Euskal AEko etxeen gastua aztertuz, etxearen eta bertako kideen sailkapen-aldagaien arabera, datuen ikuspegi sozioekonomikoa lortzen dugu

Etxearen tamainari dagokionez, *kide 1* duten etxeek **pertsona bakoitzeko** 23.884 euroko batez **besteko gastua** egin zuten 2024an, Euskal AEko batez besteko gastua (15.504 euro) baino % 54 handiagoa. Aurreko urtearekin alderatuta, *kide 1* duten etxeen gastua urtean 524 euro murritzuta da, batez beste, pertsonako. *2 kideko* etxeak, pertsona bakoitzeko batez besteko gastua 19.230 eurokoa izanik, batez bestekoaren % 24 gainetik egon ziren, eta pertsona bakoitzeko urteko gastua, batez beste, 769 euro igo zuten. Aitzitik, etxeko kideen kopurua handitu ahala, pertsonako batez besteko gastua murritzuta egiten da; hala, *3 kide* dituzten etxeetan (13.573 euro) eta *4 kide edo gehiago* dituztenetan (11.038 euro) —batez bestekoaren azpitik daude biak— % 12,5 eta % 28,8 murritzuta da, hurrenez hurren.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko tamainaren arabera. 2024

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	34.311.632	36.313	15.504
kide bat	6.971.654	23.884	23.884
2 kide	11.266.505	38.460	19.230
3 kide	7.145.524	40.719	13.573
4 eta gehiago	8.927.949	48.374	11.038

Data 2025eko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Etxeko diru-sarreraren iturri nagusiari dagokionez, diru-sarrera iturri nagusia *norberaren konturako lana* edo *jabetzaren eta kapitalaren errentak zituzten etxeak* izan ziren 2024an etxeko batez besteko gasturik handiena izan zutenak, urtean 41.845 euroekin; Euskal AEko batez bestekoarekiko % 15 gainera kokatu zen, batez besteko gastua % 7,5 murriztu zen arren 2023. urtearekin alderatuta. Horrek esan nahi du etxeko batez besteko gastua 3.399 euro murriztu zela urtean. Ondoren etorri ziren, diru-sarreraren iturri nagusia *besteren konturako lana* izan zuten etxeak, batez beste 37.998 euroko gastuarekin etxe bakoitzeko —2023an baino % 1,4 txikiagoa—. Azkenik, etxeko batez besteko gastua 33.468 eurokoa izan zen —aurreko urtean baino % 3,2 handiagoa eta Euskal AEko batez bestekoaren % 8 azpitik— diru-sarreraren iturri nagusi *pentsioak, subsidioak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak* izan zituzten etxeetan.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko diru-sarreraren iturri nagusiaren arabera. 2024

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	34.176.111	36.393	15.508
Norberaren konturako lana eta jabetza- eta kapital-errentak	3.298.301	41.845	14.839
Besteren konturako lana	17.505.079	37.998	14.486
Pentsioak, sorospenak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak	13.372.731	33.468	17.296

Data 2025eko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Etxeen gastuari dagokionez, **sostengatzaile nagusiaren jardueraren ondoriozko egoeraren** arabera, 2024an sostengatzaile nagusia aktibo zegoen etxeen batez besteko gastua 36.714 eurokoa izan zen, Euskal AEko batez bestekoa baino % 1,1 handiagoa eta 2023an baino % 2,1 txikiagoa. Aitzitik, sostengatzaile nagusia ez-aktibo zegoen etxeetan, batez besteko gastua 35.658 eurokoa izan zen, batez bestekoaren % 1,8 azpitik, baina % 3,3ko igoerarekin aurreko urtearekin alderatuta.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, sostengatzaile nagusiaren jardueraren egoeraren arabera. 2024

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeke batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	34.311.632	36.313	15.504
Aktiboak	21.534.140	36.714	14.052
Ez-aktiboak	12.777.492	35.658	18.774

Data 2025eko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Oharra:

Familia-gastuaren inkesta Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta etxeek egindako kontsumo-gastuen izaerari eta xedeari buruzko urteko informazioa ematen du, baita etxekeen unitateen bizi-baldintzei buruzko hainbat ezaugarriari buruzkoa ere.

Gaur 2024rako argitaratutako datuek COICOP 2018 (Classification of Individual Consumption by Purpose) sailkapena jasotzen dute. Sailkapen horrek ECOICOP Europako sailkapena ordeztzen du. Azken sailkapen hori 2016az geroztik erabili da inkestan. COICOP 2018 berria Nazio Batuen kontsumoko nazioarteko sailkapen bat da, eta sailkapen horrek alderagarritasun handiagoa ahalbidetzen du nazioartean.

Sailkapen berri horrek 13 gastu-talde handi barne hartzen ditu, orain arte zeuden 12ak baino bat gehiago, eta, horrela, lehen aldiz, *Aseguruak eta finantza-zerbitzuak* taldearen gastuak multzo bat osatuz agertzen dira.

Era berean, ECOICOPeko aurreko *Komunikazioak* taldea orain *Informazioa eta komunikazioak* taldea da, aurretik 09. taldean sartutako gastuen zati bat jasoz. Talde horretan, orain, *Aisia, ikuskizun eta kulturako* jarduerak soilik sartzen dira.

Ondasun eta zerbitzuetako gastuaren sailkapena aldatzearekin bat, horietako batzuen zenbatespenetan hobekuntzak sartu dira, gastuaren zenbatespen zehatzagoak lortzeko helburuarekin. Aldaketa horiek eragina dute gastu batzuk eskatzen diren idatzoharren aldietan eta gastu horiek erregistratzen diren galdetegietan.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da 2024a baino lehen argitaratutako datu guztiak berrikustea eta berriro kalkulatzea, sailkapen berriari eta kalkuluetan ezarritako hobekuntzei jarraiki. Berrikuspen hori datozen hilabeteetan egingo da, eta horren ondorioz, 2016. urtetik 2024. urtera bitartean etxeetako kontsumoko gastuari buruzko datuen serie homogeneoak jarriko dira erabiltzaileen eskura.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[Donostia kalea, 1 – 01010 Gasteiz](#)

[Prentsa Zerbitzua: \[servicioprensa@eustat.eus\]\(mailto:servicioprensa@eustat.eus\) Tel.: 945 01 75 62](#)